

Postaltxo bat irla samurrera

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Hitzak aske eta indartsu egiten gaitu. Egin egiten gaitu (...) Baina kontuz: abstrakzio burbuila bat da dena. Beti dago azpian urratu eta min egiten duen haragi-aingura. Hitzek eskaileretatik igo arren, emozioak jariatzen dituen gorputza izaten segitzen duzu. Erraza da ahaztea (...) Hitzek arriskua eurengan sinestea da. Haragiari baino balio handiagoa ematea. Batez ere besteek sortu badituzte hitzok gure partez eta ez bazaizkigu tau-paka ari den gure gorputzetik jaio».

Azkenaldian libre ditudan tarte guztiak aprobetxatzen nabil Belen Martin eta Enara I. Dominguezen “Desmontan-

do al Homo Economicus. Postales desde Isla Ternura” liburuan sartzeko. Pasarte hori uzten dizut, irakurle, gonbidapen gisa. Eta zuei, artistak!, postaltxo hau bidaltzen dizuet bueltan, samurtasunez.

Zer eta nola erraten den, dena da mezua. Hitzak baino garrantzitsuagoak dira ekintzak, baina izendatzen ez dena, ez da. Hitzak gure kontra erabili izan dira sarri. Ongi diozuen bezala, Norma, araua, emakume izena da. Bera bai benetako jainkoa! Toki guztietan dago, labana zorrotzez zauritzen, dena bitan banatuz: gizon/emakume, zahar/gazte, osasuntsu/eri, aberats/pobre, mehe/loti, bertako/kanpoko, normal/arraro...

Nor da bat eta nor bertzea? Itziar Zigari irakurri diot mundu honetako arraro guztiak gehiengoak garela. Erabat ados. Honekin ere bai: «Kontatu digutena baino ederragoak gara».

Behin baino gehiagotan gertatu zait umearekin paseatzen noala norbaitek «ze neska polita» erratean «mutikoa da» ateratzea eta segidan erantzuna irentsi nahi izatea. Nondik atera zait ‘argitzeko’ behar hori? Zer dago argitzeko? Badakit barrenean zaitudala, *homo economicus*, baina ikusi zaitut jada eta hori da lehenengo pausoa kanporatzeko. Hitza gorputzeko, sentipentsatzeko eta, jostatuz, sendatu eta sortzeko. •

Geratu mundua, jaitsi egin nahi dut

**Amagoia Mujika
Telleria**

Alaba nerabea daukan aita bakarra da eta aitortu dit beldur handi bat duela: parrandan dabilela norbaitek edarira zerbait bota, lokartu eta bortxatzea. Arrisku horrekin ohartarazten omen du alaba festara ateratzen denaro. Pentsatu dut telebistan hain modu sentsazionalistan ematen dituzten albisteak ikusi ohi dituela; diskotekako argiak eta edari kopa handiak.

Harrituta geratu naiz. Nire beldurren zerrendan oso atzean dago hori. Ez dakit inoiz aukera horren inguruan pentsatu ote dudan. Egia esan, ez da oso osasuntsua ditugun beldur guztien inguruan

pentsatzea seme-alaba nerabeak etxetik ateratzen direnero. Azala gogortzeko ariketa kontziente bat egiten ari naiz –ea lortzen dudana–.

Baina azalaz ari naizela, saiatuta ere ezin Marieren azalean jarri. 60 urtetik gora dauzka, berrogei baino gehiago ezkondua, hiru seme-alaba... eta orain jakin du 2010-2020 urte bitartean berrogeita hamar bat aldiz bortxatu dutela bera lo zegoen bitartean. Senarrak lokartzeko botikak ematen zizkion berak jakin gabe eta Interneten eskaintzen zuen lo zegoen bere emaztea bortxatzeko aukera. Harrigarria senarraren joera –berak ere parte hartzen zuen tarteka bor-

txaketa horietan–, nazkagarria bortxaketa horietan parte hartzen zuten gizonen jokaera –adin eta lanbide guztietakoak portzierto–. Frantziako Avignonen gertatu da eta azken egunetan 44 pertsona atxilotu dituzte kasu horrekin lotuta, Marieren senarra barne.

Marieren abokatuak esan du emakumearentzat «mundua geratu egin dela, bueltak emateari utzi diola».

Mafaldarekin akordatu naiz –juxtu aste honetan 57 urte bete ditu–. «Geratu mundua, jaitsi egin nahi dut», esaten du Mafaldak. Geratu mundua, emakumeak ez gaude lasai, aske eta seguru inon, ez diskotekan ezta etxeko sofan ere. •